

ZOKOMIRAN GURE GARAIETAN...

ANJEL LERTXUNDI



Guraso zuhur, hezitzaile trebe eta gainerantzeko jentilaje serioaren kezka! Zahartu gaituzte, ez dute gurekin ezertxo ere jakin nahi, alkanfor usaina hartzen digute arrimatzen gainerako!

Horren ondoren, analisisa egiteko garaia iristen da: Kantzontzilo garbiak ematen dizkiegu egunero; ez diot alkandorarik plantxatzen, ez gogo faltaz, zimurduraz beterik maite dituelako baizik; ez zaio sekula mila pezetakorik patrikan falta; orduer erreparatzerakoan ere ez naiz bekaizten goizeko hiruretan etxeko zerraila olio gabeak esnatzen nauenean; oharturik nago edan ere edaten duela baina erritak neurrian, moketa gonbitoz zikintzen digunean bakarrik; bere estudioez, berriz, zer esan? total, datorkion panoramikaz...

—Eta... droga kontu hori...?

Tira, tira, egurtuko nuke.

—Eta... pasota samarra al duzu?

Kosta zitzaidan azkeneko hauteskundetan bere botoa gutarrei eman ziezaien. Azkenean, garestia suertatu zitzaidan broma: mila duro, bi egun kanpinera joan zedin.

—Hombre, hombre... mila duroko kanpina ere...

Eta zer uste duzu, gure garaietan...

Horra, horra hor sekretua. Zaharturik, karroza, gurdi eta lera bihurturik zaude. Ez duzu zure semearekin elkarriketarik lortuko, ikaslearengandik probetxuzko ezer aterako...

Desbelatua, argitua, maindire zuriak bezala leihotik zintzilikatua duzu zeure sekretua: *Gure garaietan...* esan duzu eta aski da zure tenplea ezagutzeko.

Gure garaietan... esaten duen bat haurtzarotik eta gaztarotik urrutiratua bait dago. Hilak ditu denboraldi horiek, asumituak, irentsiak, eta, bide batez, baita ahaztuak ere.

Gure garaietan... esatea atzean utzitako bidea da. Gehiago bueltatuko ez dena. Lehen hile zuria, behatzean daramazun ezkon eraztuna, igande arratsaldetako pasio/paseoa, hilaren azkenean sobrea etxeratu beharra, tripa zaintzen hasi beharraren nekea, haziendari kotizatzea. Guzti hori eta gehiago duzu orainaldia. Guzti horren aurkakoa zenuen atzean utzi duzuna.

—Karroza bat zara, majo!

Min ematen dizu ezta? *Gure garaietan...* erreztatzen hasiko zara, buruz ongi ikasitako erretolika bat bezala. Klandestinitatea, euskarari eskainitako orduak, sindikatoa, FOPen aurretik botatako izerdiak, ikastola, eszizioak, Villasante versus Diplodocus, eta beste hainbat burutazio isuriko duzu letania aspergarrian.

Eta galderak ere beste letania bat bezalaxe entzun beharko dituzu:

—Klandestinitate zer? Euskarari orduak? Zertarako sindikatu? Zer da FOP? Nor da Villasante?

Zu aho zabalik geratuko zara. Eta orduan zure seme/ikasle/gazte horrek hala botako dizu behin berriro:

—Karroza bat zara, majo!

Haserretuko zara, madarikatuko duzu zure seme/ikasle/gazte hori baina beti jakingo duzu zure barne izkutuenean arrazoi guztia duela seme/ikasle/gazte horrek.

Goizegi ikasi bait zenuen *gure garaian...* esaten.

Hori esaten duzun bakoitzean zure garaia pasatua denaren seinale bait da.